

SumoBot Competition



AGERTOKIA:

2019ko irailaren 21an Elburgoko Landederra kiroldegian Sumo Robot Txapelketa ospatzen da. Sumobot lehiaketetan partehartzaileek diseinatutako, eraikitako edo programatutako robotak arau¹ batzuen arabera lehiatzen dira. Orokorrean, helburu nagusia aurkaria mugatutako eremutik edo dojetik botatzeko datza.

Aurtengo txapelketan parte hartzeko denborarik ez duzutenek, talde bat osatzea eta hurrengorako aurkeztea erabaki duzue. Sumobot bat diseinatuko duzue txapelketako arauen² arabera (lego piezen bidezko eraikuntza ezik) eta proiektuari dagokion dokumentazio tekniko garatuko duzue. Zuen sumobot-aren bereizitasuna, baliagarritasun gehigarri bat izan behar duela da (ez duena zertan txapelketarekin zerikusia izan behar).

HELBURUA:

Helburu nagusia baliagarritasun gehigarria duen sumobot baten diseinua eta proiektuarekin erlazionatutako dokumentazioaren garapena da.

BALDINTZAK:

- Taldeak diziplina aniztunak izango dira, bi espezialitate gutxienez nahastuz.
- Taldek 4 lagunez osatuko dira. Horrela ez diren kasu partikularrak irakaslearen onespina beharko dute.
- Entregatu beharreko dokumentazioa **UNE157001-14 arauaren arabera Proiektu osoa: Memoria, Eranskinak (beharrezko kalkuluak), Baldintzen Plegua, Aurrekontu eta Bideragarritasun Analisia.**
- Taldeek beraien **sumobotaren aurkezpen publikoa** egingo diote epaimahaiari.
- Proiektuaren **prozesu osoa irekia** izan behar du eta edozein pertsonarentzat eskuragarri egon behar du **blog, web edo edozein argitalpen digital moduan.**

ITURRIAK:

<http://sumobotelburgo.blogspot.com/p/reglamento.html>
<https://teslabem.com/tutoriales/como-armar-un-sumobot/>
<http://robogames.net/rules/all-sumo.php>

¹ https://es.wikipedia.org/wiki/Competici%C3%B3n_de_robots

² <http://sumobotelburgo.blogspot.com/p/reglamento.html>